

OSKORRI TALDEAK 'PUB IBILTARIA' DISKOAREN HIRUGARREN ATALA ARGITARATU DU

Euskal kantutegia berpizten jarraitzeko grinak jota

■ Beste hamazapi kantu herrikoi dakartza *Pub Ibiltaria* bildumaren hirugarren aleak

■ Zuzenean grabatua, maiatzetik aurrera Euskal Herriko txoko guztietan aurkeztuko dute

■ Taldeak bilduma iraunkor historiko bati ekin dio euskal kantutegi aberatsa jasotzeko

Lutxi Fourcade / Baiona

HERRIEN arteko ezberdintsuna gehien adierazten duen elementua herri kultura denez, eta herri kulturaren barnean batez ere musika, Oskorri taldeak musika-ondarearen berpizte eta eza-gutarazte lan eskergari ekin zion duela bi urte. *Pub Ibiltaria* izenburupean, kantu zaharren lehen bilduma bat osatu zuen, eta formatu bikoitzean osatutako lana eskaini: alde batetik, publikoarekin grabatutako kantuak aurkeztu zituen disko batean; bigarren diskoan, berriz, kantuen musikak baizik ez zituen grabatu, musika haien harian jendeak kanta zezan. Kantuen hitzak, itzulpenak eta partiturak diskoe-kin batera saltzen zen liburuttoan zeuden.

Modu ludiko hori hautatuz, kantu zaharren transmisioa laguntzea finkatu du helburutzat Oskorri taldeak. «Ideia filosofiko bat bada proiektu horren atzetik», azpimarratu zuen atzo Natxo de Felipek, taldeko kantariak, Baionan egin agerpenean. Taldearen aburuz, baze- goen premia bat kantu zahar- rak abesteko aukera eskaintzeko. Horretaz gainera, «kantu tradizionalak oso inportanteak dira kulturalki, elkarrekin goxatzeko aukera ematen dutelako eta gure historiako notizia ugari ematen dutelako», gaineratu zuen Natxo de Felipek.

Jendea akuilatu kantatzeko

Duela hiru urte hasitako bide beretik jarraituz, Oskorri taldeak lanaren hirugarren atala aurkeztu du. Euskal Herri osoko 17 kantu tradizional bildu ditu lan honetan. Batzuk nahiko ezagutuak badira ere, beste anitz ahan- tziak izan dira urteetan. Dis- koa zuzenean grabatu zen 1998ko abenduaren 21ean (Santo Tomas eguna), Bilbo- ko Arenalean, eta ohiturari



BOB EDME

Kazetariak kantari jarri zituen Natxo de Felipek atzoko aurkezpenean.

jarraituz diskoaren aurkez- pena egingen da maiatzean, Euskal Herri osoan. Izan ere, diskoak grabatzea baino haratago, Oskorriren helbu- ru nagusia jendeari eragitea da: «Jendea akuilatu atzetik, lehengo abestiak kanta ditzan».

Hirugarren lan honetan eta aurreko bietan, denetara 52 kantu herrikoi bildu ditu Oskorrik. Alabaina, lan honek ez duela mugarik adierazi zuen atzo Angel Val- desek, Elkarlanean argitale- txeko musika arduradunak. «Taldea buru-belarri sartu

da lan honetan, eta, euskal kantutegia oso aberatsa denez mugagabeko proiektua da», adierazi zuen.

Oskorri taldeak, hala ere, muga bat edo kopuru bat bederen badu buruan: 200- 300 kantu grabatzea dute helburua.

Kantu galduen bilduma

■ Lutxi Fourcade / Baiona
«EHUNKA eta ehun- ka kantu ahazturik dira, eta beste asko oraindik bildu gabe- ak daude», azpima- rratu zuen Natxo de Felipek atzo. Kantu horiek berpizteko asmoz, Oskorri tal- deko kideek infor- mazio iturri guztiak arakatu dituzte eta antzinako paper za- har ugari ikertu. «Ez- dugu lan folklorikoa egiten, aurkitutako kantuak museo ba- tean sartzeko. Eus- kal kantuak bizi- bizi- rik daude oraindik eta zenbait kantu

herrikoi kultura bizi horren adierazgarri direlako premiazko- tzat jo genuen disko- an grabatzea».

Hamazazpi kan- tuk osatzen dute Os- korriren azken ekoizpena. Kantu batzuk ezagunak di- ra, hala nola *Adios izar ederra*, *Ardo gorri nafarra* edo *Haika mutil*, baina beste batzuk ez dira seku- lan grabatuak izan. Esaterako, Oskorri taldeak aurkitu du joan den mendean idatzitako kantu bat, *Ai, hau doloreal*, bakan entzuna izan

dena. Zuberoako *Ar- gi azkorrian jinik* agoten kantua ere grabatu du taldeak hirugarren bilduma honetan, «ahantzi gabe galdutako az- ken bertsoa». Gauza bera egin du *Haika Mutil* kantuarekin, galdutako hainbat bertso gehituz.

Beste kantu ba- tzuk egokitu egin di- tu taldeak. Esatera- ko, *Aurten gaztaina urte da* kantua, Plentziako apez ba- tek idatzia. Jose Ma- ri Azkuek bildu zi- tuen bertso paperak baina doinua desa-

gertu egin zen. Os- korrik partitura aur- kitu zuen Euskal- tzaindiaren egoitzan baina moldatu egin du diskoa grabatze- ko. *Ene izar maitea* kantuarentzat, ber- riz, Oskorri taldeak zalantza zuen kan- tatzeko moldea hau- tatzean. Izan ere, bi molde ezberdin de- fendatu baitzituzten Salaberri Mauleko abokatuak eta La- massouk. Zuberoa- ko nekazariak en- tzutera joan ziren eta haien moldeari jarraituz dute graba- tu.

Bilboko Koralak hiru kontzertu eskainiko ditu Nantesko jaialdian

■ Gorka Sierra buru duen abesbatza asteburuon ariko da Britainiako hiriburuan

Erredakzioa / Bilbo

BILBOKO KORAL ELKAR- TEA Nantesko La Folle Journeen jaialdian izango da asteburuon. Bertan, Bizkaitik abiatuko diren 70 abesbatzakide inguruk hiru kontzertu ezberdin eskainiko dituzte.

Hector, Gabriel, Maurice eta besteak da aurtengo jaialdiaren izenburua, eta, besteak beste, Ravel, Ber- lioz, Faure, Debussy, Bizet, Chabrier, Frank, Sait-Saëns, Poulenc, Satie eta Durufle musikagileen lanak interpretatuko dira.

Bilboko Koralak euskal musikagileen lanak eskai- niko ditu larunbatean. Arratsaldean hainbat lan interpretatuko ditu Gorka Sierraren gidaritzapean. Gauean, berriz, Tolosako Capitole Orkestrarekin batera, Ravelen *Daphnis et Chloe* eskainiko du abes- batzak. Igandean Durufle- ren *Requiem*-a interpreta- tuko du, Sierra zuzendari dela.

Datorren urterako gon- bita jaso du jada Bilboko Koral Elkarteak. 2000. urteko jaialdian Bach omenduko dute.

Vienako Haur Kantariak Gasteizko katedralean ariko dira gaur arratsean

Erredakzioa / Gasteiz

VIENAKO Haur Katarien abesbatzak kontzertua emango du gaur Gasteizko Katedral Zaharrean.

Zortzi eta hamabi urte bitarteko 24 haur inzango dira aldarean, eta Lucio Golinoren zuzendaritzape- an Brahms, Schubert, Haydn eta Liszten obrak kantatuko dituzte. Kon- tzertu honen kostua bi milioi pezetatik gorakoa da (80 mila libera inguru).

Europako abesbatza onenetariko bat den honen emanaldia katedra- laren *aurrezabaltze* ekital- di gisa antolatu da, berez eliza erabat konponduta maiatza arte ez baita izan- go.